

EZKIO-ITSASO

## Igartubeiti Baserri Museoak munduko kultura festa den Mundumiran parte hartuko du

Sagardoetxearekin batera izango dira Eskoriatzan gaurtik igandera bitartean

22.05.09 - MIRYAM GALILEA| EZKIO-ITSASO.

**DV.** Igartubeiti Baserri Museoak, Euskal Herriko nekazal mundua ezagutzeko gunea, Mundumira-n parte hartuko du egun hauetan, Euskadiko Sagardo Museoa den Sagardoetxearekin batera. Munduko kulturen jai hau Eskoriatzan ospatuko da gaurtik igandera bitartean.

Bertan, sagardoaren kultura sustatzeko eta zabaltzeko, stand bat izango dute Ezkio-ltsasoko museokoek. Honetan, Igartubeiti eta Sagardoetxeako txartel bateratu bat banatuko da; hau bi haueko museoren batean erakutsiz gero, %50 deskontua suposatuko du sarreraren prezioan.

Ekimen honekin, bi museoetako arduradunek, gure historia, arte ondarea eta sagardoaren mundua ezagutarazi nahi diete Mundumirako parte hartzaileei. Beraz, gaurtik hasi eta igandea arte, Mundumira festa honetan parte hartzeko aukera izango dute nahi duten guztiek.

### Tailerra

Bestalde, larunbat honetan ere beste tailer didaktiko bat egingo da Igartubeiti Baserri Museoan. Oraingoan *Animaliak* izenburua izango du, eta honetan parte hartzen duten familiek baserrian egoten diren animaliak ezagutzeko aukera izango dute ekintza desberdinetan arituz.

Izena emateko egin behar dena museora hurbildu eta bertako telefonora deitzea da



Igartubeiti Baserri Museoa. /M. GALILEA

[En otoño todo cae menos tus ahorros: cuenta AZUL 3,60 TAE hasta el 1 de Abril de 2011](#) \_\_